



## HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEAK, EAE-KO IKASTETXEETAN PRESTAKUNTZA EKIMEN GLOBALA EZARTZEARI BURUZKOAK

Hezkuntza Sailak Prestakuntza Ekimen Global bat zuzenduko die Oinarrizko Hezkuntzako mailak (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatu dezaten.

Ekimen horren helburua gure ikasleen gaitasunen garapen-maila eta, bide batez, emaitzak hobetzea da, bai eta ikastetxe guztietan gaitasunen garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste- eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere.

Hori guztia zenbait jarduera-eremu landuz egingo da, erantzuna emateko sistemari buruzko txosten orokorretan (PISA, diagnostiko-ebaluazioak), eskola-emaitzetan, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean eta ikastetxe bakoitzaren testuinguruan hautemandako premiei.

Ekimen hori abian jartzeko, garatzeko eta haren segimendua egiteko, beharrezkoa da Berritzeguneetako eta Ikuskaritzako langileek modu koordinatuan esku hartzea lehenetsunezkatzat proposatzen diren eremuetan.

### LEHENTASUNEZKO EREMUAK

#### 1.- Gaitasunetan oinarritutako lanerako esparru orokorra

Lehentasunezkoa da irakasle guztiek gaitasunetan oinarritutako curriculumaren planteamendua zertan datzan jakitea eta ikasgelan garatzeko prestakuntza izatea. Hartarako, metodologia, ebaluazio, problema-egoera edo erronka eta abarrekin lotutako alderdiak jorratu beharko dira.

#### 2.- Komunikatzeko gaitasuna: hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala

- Ikasteko irakurtzea: ahozko adierazpenari lotutako irakurmena. Irakurketa Plana.  
Irakurmenari buruzko lana ikastetxe guztietan egin behar da, modu sistematikoan egin ere, arlo, ikasgai eta eremu guztietan, bai eta ziklo eta etapa guztietan ere, ikasle guztiei irakurle trebeak izaten laguntzeko jarduera antolatu eta planifikatuen bidez.  
Lan hori irakurmena eta ahozko adierazpena (literatura-tertuliak, irakurketa binaka, irakurketa gidatua, etab.) garatzen laguntzen duten estrategia didaktikoekin osatuko da.
- Gaitasun digitala. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen irteera-profila.  
Oinarrizko Hezkuntza amaitu duten ikasleek lortutako gaitasun digital eta mediatikoak, gaitasun digitalaren arloko Europako esparruarekin bat etorrira, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatu behar du.

#### 3.- Hizkuntza- eta literatura-komunikazioko gaitasuna. Hizkuntzen trataera integratua eta integrala. Hizkuntza-proiektua

Arlo honetan bide emango da irakasleek hausnarketa egin dezaten hala eskolako askotariko baliabideei buruz (ebaluazio-tresnak, estrategiak...) nola ikasgelako materialei buruz, hizkuntzako irakasleen lan koordinatua susta dadin hizkuntzen tratamendu integralaren gainean, eta gainerako arlo, irakasgai eta eremuetan ere hizkuntza komunikazio-tresna gisa erabiltzeko lana jorra dadin.



#### 4.- Zientziarako gaitasuna

Esku-hartzea curriculum antolatzerantz bideratuko da, ikerketan eta galderetan oinarritutako metodologiak sustatuz, bai eta ikasketa aktiboko moduak eta partaidetzazko ikerketako ikuspegiak ere.

#### 5.- Matematikarako gaitasuna

Askotariko eduki matematikoak dituzten hainbat testuingurutan egoera matematiko ugari planteatu, ebatzi eta interpretatzen diren bitartean ikasleak analizatu, arrazoitu eta komunikatzeko gauza izan daitezten.

#### 6.- Elkarbizitzarako gaitasuna

Funtsezkoa da ikastetxeak ikaskuntzarako eta garapen pertsonal eta sozialerako gune bilakatzea, jakintzaren eta eskola-komunitateko kide guztien konpromiso partekatu etengabearen bidez bizikidetzaren positiboa eta ustezko jazarpen-egoeren aurrean zero tolerantzia duen inguru seguru bat eraiki dezaten.

### PRESTAKUNTZA EKIMEN GLOBALAREN (PEG) EZAUGARRIAK ETA IKASTETXEETAN GARATZEKO PROZEDURA

- Prestakuntza emateko eta berau ikasgelan ezartzeko eskaintzak EAEko ikastetxe guztietara iritsi behar du (kasu bakoitzean, testuinguruaren arabera zehaztuko eta garatuko da).
- Ekimen horrek ikastetxeko prestakuntza lehenesten du eta irakasle guztientzat da. Zuzendaritza-taldeak eta batzorde pedagogikoak 2017-2018 ikasturtean eta hurrengoetan zer eremuri ekin zehaztuko dute, kontuan izanda proiektuetan ezarritako lehentasun-lerroak, planetan hautemandako beharrak, kanpo- eta barne-ebaluazioetako emaitzak eta abar. Berritzeguneko erreferentziazko aholkularitzak elkarlanean arituko dira ikastetxeekin proposamenak zehazteko, eta esku-hartze zuzena izango dute zuzendaritza-taldeekin eta haien batzorde pedagogikoekin.
- Prestakuntza Ekimen Globala eta haren lehentasunezko eremuak eskualde bakoitzeko ikastetxeen zuzendaritzari aurkeztuko zaizkie bilera batean (Berritzeguneko zuzendaria ez ezik, eskualdeko ikuskatzaile burua ere joango da bilera horretara). Ondoren, Berritzeguneko aholkulariak zuzendaritza-taldearekin batera aztertuko du zer beharizan hauteman diren, plangintzari ekin aurretik zehaztu beharreko alderdiak finkatzeko taldeei, prestakuntzarako denborari eta ikasgelako ezarpenari dagokienez; ikastetxearen urteko planean (Prestakuntza atala) jaso beharko dituzte alderdi horiek.
- Ikastetxearen urteko planaren segimendua egite aldera ikastetxera egiten duen lehen bisitaldian, zuzendaritzak erreferentziazko ikuskatzaileari azaldu beharko dio ikasturterako zer modulu hautatu dituen eta zergatik.



- Prestakuntza emateko eta berau ikasgelan ezartzeko prozesuek eragiten duen hausnarketa ikastetxeko urteko planak hobetzeko neurrietan isla dadin pentsatuta daude lehentasunezko jardute-eremuetan garatuko diren oinarritzko modulu guztiak.
- Oinarritzko modulu horiek Lehen Hezkuntzako irakasle guztiei zuzendutako aurrez aurreko hiru prestakuntza-saio edukiko dituzte gutxienez, eta Bigarren Hezkuntzan, berriz, hautatutako eremuaren arabera, irakasle guztiei edo haietako batzuei (mintegi bateko parte-hartzaileak) zuzenduko zaizkie. Bi etapetako irakasleek moduluari lotutako hezkuntza-praktika aplikatu beharko dute ikastetxeko hezkuntza-maila guztietan.
- Berritzeguneko aholkulariak presente egongo dira behatzaile gisa gutxienez gela batean, praktika bertan inplementatzen denean, irakasleei beren praktika hobetzen lagunduko dien *feed-back*a eskaintzeko.
- Ikastetxeko plangintza-dokumentuetan aurkakoa adierazten ez bada, Ikasketa Buruzagitzak, bere egitekoen artean, bere gain hartuko du prestakuntza-plana koordinatzeko eta berau garatu eta ebaluatzeko egitekoa. Hezkuntzako Ikuskaritzak aztertuko du plan horien planteamendua eta betearazpena.
- Ikuskaritzak prozesuaren segimendu zuzena egingo du ikasturtean zehar, eta gelan garatutako praktika ikastetxeetan gainbegiratu du.
- Prozesua amaitutakoan, egindako lanaren ebaluazioa egingo dute ikastetxeko zuzendaritzak, erreferentziako aholkulariek eta Hezkuntza Ikuskaritzak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 18a



HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

Maite Alonso Arana